

- Irizpide teorikoak eta praktikoak aplikatzeko, eta baita aztertze eta hausnartzeko animazio soziokomunitariorako bitarteko inguruan.
- Ezagutzeko animazio soziokomunitariorako ubide eta ekinbideak arakatzeko.
- Ekinbide zehatz bat miatzeko eta jorratutakoa idatziz zein jendaurrean egokitasunez azaltzeko.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. gaia: Aisialdiaren eta denbora librearen kontzeptua beraien eragin soziokomunitarioratik begiratuta.
2. gaia: Animazio soziokomunitarioaren bilakaera historikoa gizarte zerbitzua eratze bidean.
3. gaia: Ekolurralde: eremu fisikoa, ekipamendua, herritarren soslai egokia animazioa eta komunitatearen garapenerako.
4. gaia: Metodologia: Prozesua. Bolondresak: ezaugarriak eta erakartzeko estrategiak.
5. gaia: Komunitatea sentsibilizatzeko, dinamizatzeko eta inplikatze komunikazio bitartekoak eta teknikak.

METODOLOGIA

IKASKUNTZARAKO METODOLOGIA:

Ikasgaiaren edukiak eta gaitasunak jorratzeko, ikaslearen lan autonomoarekin batera (informazio bilatzeko, lantzeko eta agertzeko), gelako saioak mintegi eran antolatuko dira hainbatetan, aurrez hitzartutako gaien inguruan elkarri azalpenak eman eta ikuspuntuak trukatzeko.

Norberak eta taldean egindako lana, biak dira beharrezkoak ikasgaiari lotutako gaiak eta gaitasunak jorratzeko. Saioak elkarren artean eta nork bere erantzukizunarekin antolatuko dira, eta irakasleak koordinatzaile eta laguntzaile eginkizunetan arituko da nagusiki.

Ikasgaiaren gaitegiak seinalatzen dituen gaiak ipartzat hartuta, gai-ardatz bakoitzeko abiapuntuko irakurgai baten lanketarekin emango zaio hasiera. Lanketa horretatik abiatuta, gelakide bakoitzak gaiaren osagaiak diren, edo gaiarekin harreman estua duten beste gaiei buruzko informazioa bilatu eta jorratu beharko dute.

Elkarri azalpenak emanaz, batzuek eta besteek esanak jasoaz eta harremanetan jarriaz norberarena osatzea posible egiten duten dinamiken bidez bideratuko dira saioak. Norberaren lan autonomoaz gain, taldean eraikitakoa jasoaz ezagutzak sortzea eta zabaltzea da tailer bidezko ikaskuntzarekin lortu nahi dena.

Helburu horiekin, saioetan (eta baita gelaz kanpo ere) ondorengo jarduerak ohikoak izango dira:

>> Erreferentziako testuak eta testu osagarriak irakurtzea, aztertzea eta sintesi lanak egitea. Testuen edukien gaineko azalpenak ematea (banaka nahiz taldeka) eta bateratze lana egitea.

>> Animazio soziokomunitarioaren arloko dokumentu, proiektu eta esperientziak bilatzea, arakatzeko eta azaltzeko ikusentzunezko bitartekoak erabiliz.

>> Animazio soziokomunitarioaren arloko esperientzietan eragile izandako pertsonengana hurbiltzeko eta ekimenen berri jasotzeko jarduna (eragileak elkarrizketatuz eta kontakizuna gelara ekarriz, ekimena bertatik bertara ezagutzera joateko bisitak antolatuz, etc).

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda: M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoa TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio mistoaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Banakako lanak % 25

- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 25

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMA MISTOA:

- Beharrezkoa da eskolorduetan izatea (saioen %80an).
- Froga idatzia egin ahal izateko beste lanak entregatua egon beharko dute.
- Azterketaz gain, lan guztiak aprobatzea beharrezkoa da ikasgaia gainditzeko.

Ondorengoak dira egin beharreko lanak:

- IRAKURKETEN IRUZKINEN ETA ARIKETEN dosierra -banakakoa-: %25
- AZTERLAN teoriko-praktikoa: %25
- AZTERKETA: %50

1: AZTERLANAK egiteko bi aukera nagusi daude:

- (1)----- Ingurune bateko (herria, auzoa edo eskualdea) suspertze soziokomunitarioan diharduten erakundeen mapa eta eragile baten sakoneko azterlana.
- (2)----- ASKrao bitartekoetako baten azterlan teoriko-enpirikoa (irratia, antzerkia, musika, bertsolaritza, etc).

Lanok kalifikatzeko baloratuko dena da:

- Txostenaren itxurari dagozkion baldintzan betetzea.
- Garatzea eskatutako atal guztiak garatzea, nahikoa eduki eta elkarloturarekin.
- Azalpenen eta iruzkinen aberastasun eta sakontasun maila
- Idazkuntzaren zuzentasuna, erregistro egokitasuna eta koherentzia.
- Txosten akademikoen idazkuntza baldintzak betetzea, nagusiki informazioaren iturrien aipamenari dagokionean.

2: AZTERKETA prestatzeko Egelan jarritako dokumentuak landu beharko dira. Egindako lan ezberdinen langaiak ere izan daitezke azterketako galdera.

Ohiko deialdian gainditu ezean, ez ohiko deialdirako gordeko dira gaindituta dauden lanen (edo azterketaren) notak, baina ez hurrengo ikasturtean.

Azterketara ez aurkeztea ebaluatzeari uko egitea esan nahi du.

BUKAERAKO EBALUAZIOA:

Azken ebaluazioaren sistema eskatzeko prozedura: Ikasleren batek, arrazoi justifikatuak direla eta (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 43.c, art. jarraiki), irakasgaiaren azken ebaluazioaren sistema jarraitu ahal izateko, dagokion irakasgaiko irakasleari jakin arazi beharko dio eta zentruak ezarritako Azken ebaluazioaren sistema jarraitzeko eskaera prozesua; bete (ikus zentroko web gunea).

- AZTERLANAK: %40
- AZTERKETA: %60

Biak gainditu beharko dira ikasgaia gainditzeko. Eta ohiko deialdian gainditu ezean, ez ohiko deialdirako gordeko dira gaindituta dauden lanen (edo azterketaren) notak, baina ez hurrengo ikasturtean.

Azterketara aurkeztu ezean ebaluatzeari uko egiten zaio.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdiaren baldintza berekoa.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Egelan jarritako dokumentuak dira landu beharrekoak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Ander-Egg, Ezequiel (1997): Metodología y práctica de la ASC. Buenos Aires. Humanitas.
- Barbero, Manel eta Cortés, Ferrán (2005): Trabajo comunitario, organización y desarrollo social. Madril. Alianza

Editorial.

- Cerdá, R., Cerdá, P. eta Cerdá, M.R. (2005): Animación cultural: servicios socioculturales y a la comunidad. Barcelona. Altamar.
- Froufe, S. (1998). Técnicas de grupo en Animación Comunitaria. Salamanca. Amarú.
- Marchioni, Marco (2004). La acción social en y con la comunidad. Zaragoza. Certeza.
- Pérez Serrano, Gloria eta Pérez de Guzmán, M^a Victoria (2006): Qué es la animación sociocultural. Epistemología y valores. Madrid. Narcea .
- Sarrate Capdevila, María Luisa (2014): Programas de animación sociocultural. Universidad Nacional de Educación a Distancia, Madril. Eskuragarri: <http://eduso.files.wordpress.com/2008/06/animacion-sociocultural.pdf>
- Ucar, X. eta Llena, A. (2006): Miradas y diálogos en torno a la acción comunitaria. x
- Ventosa, Victor J. (2002): Fuentes de la animación sociocultural. Madril. CCS Editorial.
- Trilla, J. (Koord.) (1998): Animación Sociocultural. Teorías, programas y ámbitos. Barcelona. Ariel.
- Peres, A. eta Cid, X. (2007): Educación social, animación sociocultural y desarrollo comunitario. Universidad de Vigo. Vigo

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

- CEAC Iniciativas sociales en educación
- Cuadernos de Acción Social
- Cuadernos de realidades sociales
- Cuadernos Técnicos de Estudios y Documentación
- Documentación Social, zbk. 70
- Dossiers Associatus. Barcelona
- Educar , 13.zbk ,(105-116. or.)
- Educadores
- Educar en el tiempo libre
- Fundación EDAE
- EDE Fundazioa
- ESTRIS
- Intervención Socioeducativa
- Monitor Educador
- Pedagogia Social <http://www.peretarres.org/revistaeducacionsocial/>
- Rev. Bonagent
- Rev. Aula. Rev. de Enseñanza e Investigación Educativa, 6. zbk, 161-183 (1994)
- Rev. Aula Abierta, 68. zbk, 38-48 or.
- Rev. de Intervención Psicosocial
- Rev. De Universidades Populares
- Rev. Interuniversitaria de T^a de la Educación,6. zbk, 161-183 (1994)
- Rev. de Serveis Educatius i per l'Animació Socio-cultural
- Rev. Intervención Psicosocial

Interneteko helbide interesgarriak

- CIMAS (2010): Manual de metodologías participativas (Eskuragarri: www.redcimas.org)

OHARRAK

גגג Garrantzitsua da oso ikasgai honek Egela plataforman duen gunea sarri errebisatzea, bertan jarriko baitira beharrezko materialak, testu osagarriak eta argibideak. Horrez gain, garrantzitsua da ere Egela errebisatzea programazioan edo ebaluazioan gertatu daitezkeen aldaketen berri izateko, Egelan argitaratuko arabera egingo baita ebaluazioa.

גגג Lan idatzi guztiei idazkuntza zuzenaren irizpideak betetzea eskatuko zaie. Oro har esanda, arloko hizkera erabiltzea eta ideiak antolatuta eta era ulergarri eta argian idatziak egotea; hori guztia gramatika eta ortografia arauak beteaz. Baldintza horiek, nahiz txosten akademikoaren oinarriko baldintzak, betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira eta EZ AURKEZTUA bezala kalifikatuko dira.